



**Arartekoaren ebazpena, 2012ko abenduaren 4koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari gomendatzen zaio, 2013rako gizarte larrialdietarako laguntzetan jasotako gastu espezifiko bakoitzerako gehienezko zenbatekoak ezartzen dituen aginduaren onespenerari dagokionez, 2011ko abenduaren 28ko Aginduan ezarritako irizpideak berrikus ditzan.**

### Aurrekariak

1. Erakunde honek kexa ugari jaso digu gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzeko mugen ezarpenari dagokionez. Muga horiek egoera larrian dauden pertsona asko laguntza horien estalduratik kanpo utzi dituzte. Aipatutako mugak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Agindu baten bidez ezarri dira. Aginduak urteroko izaera dauka eta jaurlaritzaren irizpideari jarraiki laguntza horietarako bideratutako zenbatekoak banatzea du helburu, gizarte larrialdietarako laguntzei buruzko 4/2011 Dekretuaren 9. artikuluan xedatzen den moduan.
2. Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko 18/2008 Legeak hiru prestazio ekonomiko mota ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan bazterkeriaren aurka borrokatzeko. Tresna horiek, jakina den moduan, diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta gizarte larrialdietarako laguntzak dira.

Azken horiek aurrekontu motako laguntzak dira, behar jakin bati aurre egiteko unean-unean eta espezifikoki onartzen direnak. Erregulatzeko araudian horien inguruan egondako aldaketek Arartekoaren gomendio hau eragin dute. Laguntza horiek 18/2008 Legearen II. tituluko I. kapituluaren 3. atalean arautzen dira (44. artikulutik 51.era) eta artikuluko horiek garatzen dituen araudian, gizarte larrialdietarako laguntzei buruzko 4/2011 Dekretuan.

18/2008 Legearen 46.f artikulua eta 4/2011 Dekretuaren 5.1.f artikulua, ia modu berean, gizarte larrialdietarako laguntzak eskuratu ahal izateko ondare baldintzak ezartzen dituzte. Zera dio 18/2008 Legearen 46.f artikulua: *"Ondoko baldintzak betetzen dituztenak izan daitezke, lege honetan aurreikusitako moduan, gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunak: (...) Ondarea ez izatea gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren urteko zenbatekoa halako lau baino balio handiagokoa, kontuan izanda ezen oinarrizko errenta hori, batere baliabiderik ez luketen kasuan, beren artean aipatu diren loturak dituzten pertsonen kopuru osoaren arabera legokiekeena dela. Ondarearen balioa kapitulu honen 2. atalean araututakoaren arabera zehaztuko da".*





Inolako baliabiderik ez izatekotan diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokion zenbatekoa oinarritzat hartuta kalkulatu den gizarte larrialdietarako laguntzak eskuratzeko muga baten aurrean egongo ginateke. Zentzu horretan, gogoratu beharra dago zenbateko hori zehazteko lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) erreferentzia gisa hartzen dela eta diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa horren portzentaje bat egokitzen dela bizikidetzaren unitatearen kide kopuruaren arabera. Oro har, 18/2008 Legearen 20.1. artikulua honako zenbatekoak ezartzen ditu: LGSren % 88 pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateetarako, LGSren % 113 bizikidetzaren unitatea bi pertsonek osatzen dutenean eta % 125 unitate horretako kide kopurua hiru pertsonek edo gehiagok osatzen dutenean.

Beraz, gizarte larrialdietarako laguntza bat eskuratu ahal izateko, eskatzen duen pertsonak ezingo du urteko LGSren % 88, % 113 edo % 125 – bizikidetzaren unitatea osatzen duen pertsona kopuruaren arabera- lau bider gainditzen duen ondarerik izan.

Irizpide horien arabera, Lanbideek hileko gehieneko honako zenbateko hauek finkatu ditu diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa jaso ahal izateko: 612,41€ (pertsona bakarreko bizikidetzaren unitatea), 786,39€ (bi pertsonako bizikidetzaren unitatea) 869,90€ (hiru pertsona edo gehiagoko bizikidetzaren unitatea)<sup>1</sup>. Azaldu den moduan, gizarte larrialdietarako laguntzak eskuratzeko ondare mugak eskatzaileari urtebetean dagokion zenbatekoa laukoiztuz zehazten direla kontuan hartzen badugu, 18/2008 Legearen 46.f artikulua eta 4/2011 Dekretuko 5.1.f artikulua arabera, honako mugak lortuko ditugu: 29.395,41€ (pertsona bakarreko bizikidetzaren unitatea), 37.746,39€ (bi pertsonako bizikidetzaren unitatea) 41.755,90€ (hiru pertsona edo gehiagoko bizikidetzaren unitatea). Beraz, bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren arabera ondare muga hori gainditzen duten eskatzaileek ezingo dute gizarte larrialdietarako laguntzarik jaso.

3. 4/2011 Dekretuaren bigarren azken xedapenak, bestalde, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari araudia garatzeko ahalmena eskaintzen dio argi ezarritako muga batzuen barnean: *“Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari dekretu hau garatzeko eta gauzatzeko behar diren xedapenak hartzeko eta dekretu honetan ezarritako eskabide-eredu normalizatua aldatzeko ahalmena ematen zaio.”*

2011ko abenduaren 28an (2010ean ere gertatu zen moduan), Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuordeak agindu bat eman zuen. Bertan, 2012. urterako, gizarte larrialdietarako laguntzetan jasotako berariazko gastu guztietarako gehienezko zenbatekoak ezartzen dira, haiek ordaintzeko

---

<sup>1</sup> Zenbateko horiei 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen bidez onartutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren % 7ko murrizketa kendu zaie. Lanbideren informazio webetik [www.lanbide.net/plsql/AYU\\_DETALLESUBVENCION?idioma=C&codigo=12#](http://www.lanbide.net/plsql/AYU_DETALLESUBVENCION?idioma=C&codigo=12#) ateratako datuak



esleitutako kredituen banaketarako irizpideak aipatzen dira, eta 2012rako, Euskadiko Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari dagokion aurrekontu muga finkatzen da.

Tresna mota horren urteroko argitalpena, adierazi dugun moduan, gizarte larrialdietarako laguntzei buruzko 4/2011 Dekretuaren 9. artikulua xedatzen du eta zera dio: *"Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailak urtero ezarriko ditu, Agindu bidez, Dekretu honetako 3. artikuluan aurreikusitako gastu espezifikoetako bakoitzerako gizarte-larrialdietarako laguntzen kontzeptupean urte bakoitzean eman beharreko gehieneko zenbatekoak, orokorrean."*

Agindu hori dekretu beraren 32. artikuluekin osatzen da. Bertako lehen bi paragrafoetan zera ezartzen da: *"1.- Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak aztertu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzeko dagoen dirua erkidego barruko lurralde historikoen eta udalerrien artean nola banatuko diren zehazteko irizpideak gizarte-zerbitzuetako eskumena daukan Eusko Jaurlaritzaren Sailak zehaztuko ditu urtero, eta beharren adierazleei begira zehaztu beharko ditu batez ere. 2.- Erreferentziazko irizpideen aplikazioari jarraiki, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuetako eskumena duen Sailak Udal bakoitzari dagokion gehieneko aurrekontua finkatuko du, horren guztiaren berri eman ez EHAAn argitaratuko den sailburuaren Aginduaren bitartez."*

2011ko abenduaren 28ko Aginduak, 2012. urterako, gizarte larrialdietarako laguntzetan jasotako gastu espezifiko bakoitzarentzat ezarritako gehieneko zenbatekoak finkatzen ditu. Bere estaldurarako esleitutako kredituen banaketarako irizpideak aipatzen ditu eta, 2012. urterako, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari dagokion aurrekontu muga ezartzen du. Baina horrez gain, laguntzak eskuratzeko ondare baldintzak ezartzen ditu, 18/2008 Legearen 46.f artikulua zein 4/2011 Dekretuaren 5.1.f artikulua ezarritakoez nabarmenki urruntzen direnak. Hain zuzen ere, aginduaren 2.4. artikulua zera xedatzen du: *"Eskabide bakoitzean laguntzari esleitzen dion zenbatekoa agindu honetako 1. eranskinean, eskatzailearen baliabideen arabera<sup>2</sup>, ezartzen den ehuneko aplikatzearen emaitza izango da. Ehuneko hori artikulua honetan kontzeptu bakoitzerako ezartzen den gehieneko kopuruaren gainean aplikatuko da, edo benetako gastuaren kopuruaren gainean, kopuru hori kontzeptuko gehieneko kopurua baino txikiagoa bada, Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen Dekretuko 10.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki"*.

Zentzu horretan, aginduak ez ditu soilik legearenak ez bezalako baldintzak ezarri, horrez gain, 4/2011 Dekretuaren 32. artikulua (gorako jaso) arau

---

<sup>2</sup> Guk azpimarratu dugu



mota horretarako ezartzen dituen xedapenetatik haratago joan da arautu beharreko alderdiei dagokienez.

Aipatutako I. eranskinak honako taula gaineratzen du eta haren edukiak, azken batean, Arartekoaren gomendio hau eragin du:

Bizikidetzta-unitatearen (BU) baliabideen arabera (diru-sarrerak eta ondarea) dagokion laguntza-ehunekoa.		
BUaren diru-sarreraren % DBEaren gainean	BUaren ondarearen balioa	Dagokien GLLaren ehunekoa
< % 100	< 4.000 euro	% 100
	4.000-8.000 euro	% 100
	> 8.000 euro	% 0
% 100 - % 120	< 4.000 euro	% 75
	4.000-8.000 euro	% 60
	> 8.000 euro	% 0
% 120 - 140%	< 4.000 euro	% 50
	4.000-8.000 euro	% 40
	> 8.000 euro	% 0
% 140 - % 150	< 4.000 euro	% 30
	4.000-8.000 euro	% 25
	> 8.000 euro	% 0
> % 150	< 4.000 euro	% 0
	4.000-8.000 euro	% 0
	> 8.000 euro	% 0

Taulan hainbat muga ezartzen dira eskatzaileen ondare balioaren inguruan, 18/2008 Legeak eta 4/2011 Dekretuak ezarritakoak ez bezalakoak. Horrela bada, berrikuntza nabarmen bat ezarrita, bizikidetzta unitatearen kide kopurua ezabatzea hain zuzen, 8.000 euroko gehieneko ondare muga ezartzen da, aipatu ditugun legearen eta dekretuaren arabera muga hori 29.395,60, 37.746,70 edo 41.755,20 eurokoa den arren (kasuan kasu, azaldu dugun moduan).

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Agindu horren argitalpenak Arartekoaren ofiziozko jarduera bat eragin zuen eta 2012ko otsaileko 27an informazio-eskaera bat bidali zion arauzko hierarkiaren printzipioaren ustezko



arau-hauste bat antzeman zela jakinarazteko. Bere erantzunean, Arartekoari zuzendutako idazki bat bidalita zera aipatzen da: *"...prestazio honen dirulaguntza-izaera dela eta (hau ez da eskubide subjektiboa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria bezala), aurrekontu-baliabideei lotuta dago. Hori dela eta, uste dugu beharrezko neurriak hartu behar ditugula Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontu Orokorretan zehazten den zenbateko ekonomikoak aurre egin ahal izan diezaien premia larrienei."*, baina ez da erreferentzia zuzenik egiten informazio-eskaeran azaldutako kontuen inguruan.

### Gogoetak

1. Arauzko hierarkiaren printzipioa Espainiako Konstituzioaren 9.3. artikulua ematen du: *"Konstituzioak bermatzen ditu legezketasunprintzipioa, arauen arteko hierarkia, arauen publizitatea, xedapen zehatzaileen atzeraeragin eza-xedapenok banakako eskubideei begira onuragarri izan ez edo eskubideok murrizten dituztenean- segurtasun juridikoa, erantzukizuna, eta botere publikoen nahierakeriaren debekua"*. Jakina den moduan, antzina adierazitako printzipio bat da, Kode Zibilaren 1.2. artikulua azaltzen duen moduan: *"Ez dute baliorik izango goragoko lerruneko xedapenen bat urratzen duten xedapenek"*.
2. Zentzu horretan, Arartekoaren gomendio honek hizpide duen Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Aginduaren kokapen hierarkikoa zehazteko Jaurlaritzaren Legeari buruzko 7/1981 Legea jo beharko genuke, III. kapituluak araugintza-ahalmena jorratzen baitu. Hala dio 59. artikulua: *"Araugintza ahalmena erabiltzea honako arau-mailaketa honi egokituko zaio: Lehenengoa.-Jaurlaritzaren Dekretoak. Bigarrena.-Jaurlaritza-Sailen Aginduak"*. Azken horiek sailen tresna nagusi gisa eraten dira araugintza garatzerakoan; hala bada, 61. artikulua zera xedatzen du: *"Sailek, Sailburuek izenpetutako aginduz egiteratuko dute araugintza-ahalmena"*.

Azaldu dugun moduan, 4/2011 Dekretuak berak artikuluetako hainbat puntutan gobernuari eskaintzen dio gizarte larrialdietarako laguntzak banatzeko irizpideak ezartzeko ahalmena, baita udal bakoitzak laguntza horietarako izango dituen zenbatekoak ezartzeko ahalmena ere baina, gure ustez, ez dio ahalmenik ematen modu zorrotzago batean, horiek eskuratzeko irizpideak aldatzeko.

Gure ustez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Aginduak, Arartekoaren Gomendio honen helburu denak, I. eranskinean ezarritako zenbatekoen arabera, gizarte larrialdietarako laguntzak eskuratzeko aukera mugatzen die, 18/2008 Legearen 46. f artikulua irizpidearen arabera, hura eskura zezaketen pertsonen, lege mailako agindu bat hierarkikoki maila baxuagoa duen arau baten bidez.



Adierazi dudan moduan, gure ustez antolamendu juridikoak sail horren titularrari ahalmena ematen dion gizarte larrialdietarako laguntzetara bideratutako aurrekontua aldatzeko eta zenbatekoak banatzeko irizpideak ezartzeko, baina ez laguntza horiek eskuratzeko aukera murrizteko.

3. Horri buruz mintzatzen da, hain zuzen ere, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea onartzen duen 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49.3. artikulua. Honela dio: *“Laguntzak eta diru-laguntzak emateko, kasuan kasuko arauak esaten dutena hartuko da kontuan. Dena den, jartzen diren baldintzak betetzen dituzten guztiak askatasunez parte hartzeko aukera dutela ziurtatu beharko dute arau horiek, eta gainera, berdintasunez parte hartzea ere erraztu beharko da”*.

Gizarte larrialdietarako laguntzak eskuratu ahal izateko baldintzak 18/2008 Legeak eta 4/2011 Dekretuak ezartzen dituzte, aipatu dugun moduan, maila baxuagoko arau batek -hala nola, Jaurlaritzako sail baten agindu batek- aldatu ezin dituenak. Ondorioz, aurreko paragrafoan jasotako agindua ere urratu ahal izan da, izan ere, ez litzateke bermatuko araudi erregulatzailerik ezarritako baldintzak benetan betetzen dituzten pertsonen lehia askea eta, beraz, laguntza horiek berdintasuneko esparru batean eskuratzeko eragotziko litzateke.

4. Gure informazio eskaerarekiko erantzun horretan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, adierazitako kontuekiko zuzeneko erreferentzia bakar gisa, aginduaren aldarrikapena justifikatzen saiatzen da diru-laguntza izaeraren argudioarekin, aurrekontu eskuragarritasunaren mende jartzen duena, eta Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan zehaztutako zenbateko ekonomikoak behar larrienei aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla adieraziz.

Erakunde honek ez du zalantzan jartzen laguntza honen diru-laguntza izaera. Ezta Eusko Jaurlaritzak bertako aurrekontuetan zehaztutako zenbateko ekonomikoak behar larrienei aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartu behar izatea ere. Gomendio honetan gizarte larrialdietarako laguntzak eskuratzeko aukera maila baxuagoko arau baten bidez mugatu izana dugu hizpide.

Agindu horrek, 4/2011 Dekretuaren 9. eta 32. artikuluetan eta bigarren azken xedapenean ezarritako manua betetzeaz gaindi, gizarte larrialdietarako laguntzak eskuratzeko aukera mugatzen du ondare baldintzak nabarmenki zorrotzuz, 18/2008 Legearen irizpideen arabera, 4/2011 Dekretuaren inguruan, horien hartzailerik izan zitezkeen pertsonak laguntza horietatik kanpo utzita, horretarako legezko estaldurarik izan gabe eta, beraz, arauzko hierarkiaren printzipioa urratuz.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:



**90/2012 Gomendia, abenduaren 4koa, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari egina:**

Arartekoaren gomendio honen edukia kontuan har dezan, 2013. urterako gizarte larrialdietarako laguntzen inguruan Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Aginduaren onespeneren ondorioetarako, 18/2008 Legearen 46.f artikulua, 4/2011 Dekretuaren 5.1.f artikulua inguruan, laguntza ekonomiko hauek eskuratzeko ezartzen dituen ondare mugak errespetatu daitezzen, arauzko hierarkiaren printzipioaren babesean.